

"BOLSA" KO GORA-BERAK



—Zer diñue pediorikuok, ba?

—Azñuak biapera datozala. Librak geruago-ta-geyago, eta *mar-kuak* geruago-ta-gitxiago *batijo* dabiela.

—Orduan, gure Firpon gixaxuak asko galduko dau; eta eskerak markuetan galtzen dabena libretan irabazten ba-dau.

—Non jakosak oñek librak, ba?

—Eztoz ikusten, ala? Librak ez-eze, ogei gitxiene *zafua* be 'baja kozak oñek.

ASTOA ETA AZERIA

(IPUYA)

Azeri zar bat zegoan bein
Bide-ondoan geldituta,
Noski, eta inguru ayetan
Zertxobait eiza nabaitura.
Alabearean, bidetik
Asto bat gustiz zamatuta
Burua makur, neke-pian
Zijoan geldika-geldika.
Azeri zarfa, ura ikustian,
Asi zan ixeka ta parez,
Asto ain otzan apalari
Mintzatzen txoro ta destañez.
—Ene astoko: aundiya dek
i beti ero, beti asto.
¿Zertan ofenbeste lan egin
Beti joputzar izateko?
—Nik—erantzun zuan astoak—
Lan egiten diat, bai, sendo;
Onek ematen zidak zer jan
Baita etxea basterfzeko.
Eta i, azeri zar, gaiztoa,
Bizi aiz, ba, ni baño obeto?

—Azke beintzat, ene astoa,
Neure naya beti egiten;
Nai detan tokiyetan bizi,
Ta afapatzen detana jaten.

Etzun, banan, azeri zarak
Jaraitzeko astirik izan;
Gizon bat andik nabaiturikan
Sastrakan eskutatu zan.
Baña gizona aldendutzian
Gaiztoa beriz zan azaldu;
Orduan astoak gutziz ben
Zion baita ere galdetu:
—Aizak: ¿zer dala-ta gorde aiz
Gizona somatu-orduko?
—¡Ai astoa! Eskutatu naiz
Ba, ofen bildur naizelako.
—¡Aritzen nauk! ¡Nik gizonari
Ez diot bildurik egundo!
—I aizenez zindo-zindoa
Beti bizitzen aiz onustez;
Ni, bañan, oker ta gaiztoa,
Bizi naiz ernai txit bilduréz

—¡Ai ene azeria: ik diok
Gustiz azke bizi aizela;
Bañan dakust, inoren menpe,
I baño azkego naizela.

Lan-dagit, zindo-zindoa naiz
Ta bizi naiz lasai, gentzakin;
Gaizto, txarbera, eurekoya,
Lotua ago ainbat keskakin.

Zindotasun eta lanian
Etzok, ez, joputasunik;
Alperkeri ta txarbidetak
Azkea jopu-egiten dik.

TENE.

Aldun-eukitsubak bere...

Gixonak zorijon eskier edo ziurik une batian bere ezin leike euki. Gauñ zorijontsu dagona bijar zoritxaroko agertu leike. Altsubaren agi-mena be goi-goiko maletatik jausi leike. Aberatz ixandakua, txiro, ogei-eske ibili leike. Ludiko gixon-arazuak igeskoñak dira-ta.

Auntariko jazokunak, zoritxaréz, sari ta ainbat jazoten dira.

Oraintxu Europa-erdijaren jaube, II'gañen Romanof'taf Nikola, Efusia'ko Kaiser-Bakaldunari jazo yakona edonok daki.

Urte gitxi dala ludiko lateririk zabalaren aldun-nagusi, Efusia'ko ortodoxo-ziñeskintzaren buru-agintari, deunkixuntzat euken gixon ogasunez eukitsuba, guraño atsegin jokasetan bixitxari emondaiko gixona, bere atzenengo egunak lapur ziñzila ixan ba'litz lez, agintza ta aberastasunak kendurik, sendija banandu, gosez euki, lasto-tartian lo-eragin eta beste esan-eziñalako gauza itxuskerijak, bere eñi gudaz naspilduriko matxinada dolar-burubak igaro-eragin eutsoezan eta azkenez, gixozte zatat' oñek erail eban.

France'ko III'gañen Napoleon'en emaztia zan Montijo'taf Miren Eukene, aldi aretako bakaldunen anderarik lirain-edefena, ta azkenez jazokun-geraeraz bere bixitza zoritxar-nekapian eruapenez igaro eban andera aumexen edestijak be bai-damosku ikaskaya.

Aldun-eukitsubak bere... aldunge, zoritxarera jausi leikez.

Afatsalde baten—urte asko ondiñokafen ezta—III'gañen Napoleon'en emazte entzutetsuba, Tullerias antziñako jauregi-dantzaketaz ta jan-edanaz berari ainbat ospe emon eutson andera-jaubia, zoritxaréz ospe-gabe ta urtian-urtez ezauge, alarğun-janzki baltzagaz, aguretxu bat lagun ebalu, bere gurakunako Tullerias-lilitegijan egur-azten ebulan.

Lilitegijan bere begi-begiko lora-lili bat ikusi, ta usterik etxe ar-etan bakaldun-emazte antziña bixi zaneko aginduba eukala, jakinge ta gogoratu-barik maikuñtu ta lora-lili begikua eskuratzen dau.

Bertantxe, bat-batera, uri-zaña arkeztu yakon eta lora-liliari usainka gozatsu, aldi bateko andiñasunaz oldoztun eguan andreari zuzendurik, gogorez iñotsan:

—Lora-lili ori artu dozulako, befogei lauñleko ixuna.

Laguntzat eruan eban aguretxuba sakeletik, zigortza ordaintzeko, diruba gertetan dabilan artian, uri-zaña ingi ta idazkiña eskuban ebararik andereari, asafez zuzendurik dirautso:

—Anderea, ¿zeure ixena?

Ta uri-zaña idazteko arokeriz gertu dago ixena noiz entzungo.

Eta anderea, ixil-ixilik, abots me-bigunaz, bere bixitxako ospe ta andixurenak goguan laztanduten daben antzera, darantzutso:

—Miren Eukene, III'gañen Napoleon'en alarğuna.

Zorijontasun-garaira gixona nekez eitzen da, baña garai ofetara eldu daneko bekaizkeri ta ikusi-eziñako ekaitz goretokerijak alde gustijetatik zirikatzen dau, ta len bera andiñasunera jasoten ebiltzanak jasten dabe bariz ezereztasunera. Ludiko egunoroko jazokunetan doguz ikaskayak.

GAUTARBI

Busturia.

